



IKASTETXEA	AIXERROTA BHI	KODEA	015109
Arloa/ Irakasgaia	Natur Zientziak	Zikloa / Maila	DBH 2
Irakasleak	Itziar Asla, Iratxe González	Ikasturtea	2015~16

HELBURUAK	EBALUAZIO - IRIZPIDEAK
<p>1 Errealitatea azaltzeko eskemak egitea, kontzeptuak bereganatzeko eta ulertzeko</p> <p>2. Problema ebaztea eta ikerketatxikiak egitea, arrazonamenduak eta dedukzioak egiten</p> <p>3. Hainbat iturri erabiliz gai zientifikoei buruzko informazioa lortzea, erabiltzea eta bere edukia baloratzea, hizkuntza zientifikoaren erabilpena bultzatzeko</p> <p>4. Zientziei buruzko informazioa duten mezuak aktiboki eta kritikoki interpretatzea.</p> <p>5. Ekosistemari buruzko ezaguera zientifikoa erabiltzea, natura balioesteko kudeatzeko eta naturaz gozatzeko, garapen iraunkorraren alde arduraz parte hartuz.</p> <p>6. Zientziaren izaeraren ezaguera erabiltzea gizateriaren kultura-bilakaeran eta bizi-baldintzen hobekuntzan izandako garrantziaz jabetzeko</p>	<p>1. Ea errealitatea azaltzeko eskemak egiteko gauza den .</p> <p>a) Ea kontzeptuak ulertu eta bereganatu dituen</p> <p>b) Ea proposatutako ariketak, eskemak eta lanak egiten dituen, lortzeko beharrezkoa den lan ohitura, bai zientzietan, bai beste irakasgaietan ere.</p> <p>c) Ea proposaturiko lanak epean entregatzen dituen.</p> <p>d) Ea ariketak eta lanak osatuta eta txukun aurkezten dituen</p> <p>2. Ea, problema ebazten eta ikerketa txikiak egiteko gauza den, arrazonamenduak eta dedukzioak egiten.</p> <p>3. Ea, hainbat iturri erabiliz gai zientifikoei buruzko informazioa lortu, erabili eta bere edukia baloratzeko gauza den, hizkuntza zientifikoa erabiliz</p> <p>4. Ea, zientziei buruzko informazioa duten mezuak aktiboki eta kritikoki interpretatzen dituen.</p> <p>5. Ea, ekosistemari buruzko ezaguera zientifikoa erabiltzen duen, natura balioesteko, kudeatzeko eta naturaz gozatzeko, garapen iraunkorraren alde arduraz parte hartuz.</p> <p>6. Ea, zientziaren izaeraren ezaguera erabiltzen duen, gizateriaren kultura-bilakaeran eta bizi-baldintzen hobekuntzan izandako garrantziaz jabetzeko</p>



EDUKIEN SEKUENTZIA

(denbora –tarteka; unitate didaktikoa, proiektua; ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta)

1. Ebaluazioa

Izaki bizidunen eta ingurunearen aldaketak :

1. Izaki bizidunen bizi-funtzioak

- Elikadura: izaki bizidunek materia eta energia lortzea eta erabiltzea.
- Nutrizioa autotrofoa eta heterotrofoa.
- Fotosintesia eta Lurreko bizitzarako duen garrantzia.
- Harreman-funtzioak: pertzepzioa, koordinazioa eta mugimendua.
- Sexu bidezko ugalketaren eta ugalketa asexualaren ezaugarriak.

2. Ebaluazioa

▪ **Materiaren aldaketak**

1. Posizio-aldaketak

- Mugimendua: erreferentzia-sistemak, ibilbidea, posizioa, ibilitako tartea. Abiadura.
- Mugimendu soilen grafikoak. 2. Aldaketa termikoak.
- _ Tenperatura eta beroa

2. Aldaketa optikoak eta soinu-aldaketak.

- _ Argia eta soinua.

3. Ebaluazioa

▪ **Lurraren aldaketak:**

1. Barneko aldaketa geologikoak

- Lurraren barne-egitura.
- Lurraren barruko energiaren seinaleak: sumendi erupzioak eta lurrikarak.
- Harri magmatikoen eta metamorfikoen eraketa.

2. Ingurumen naturala:

Ekologia: Egitura eta dinamika



- Biosfera, ekosfera eta ekosistema.
- Ekosistema baten osagaiak. Faktore abiotikoek eta biotikoek ekosistemetan duten eragina eta faktore horien interakzioak.
- Piramide trofikoak.
- Materia eta energia ekosistemetan.
- Lehorreko eta uretako ekosistemak.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

- Gaiari- hurbilketa: ikasgai bakoitzaren hasieran datozen irudiak, testuak eta galdera irekiak erabili, sarrera gisa (beraiek dakitena aurreikusteko)
- Gaiaren azalpenak ematen dira, laburpenak, eskemak eta mapa kontzeptualak prestatuz.
- Edukiak bereganatzeko, liburuan edo beste iturritan dauden ariketak, artikulak, informazioak, fitxa osagarriak..... eta haien zuzenketa egiten ditugu.
- Hiztegi zientifikoa lantzen da hainbat ariketen bidez.
- Lan egingo dute bakarka zein taldeka. Saiatuko gara ahalik eta era aktiboen eta autonomiaz lan egin dezaten.
- Gaiaren bukaeran ikasteko eta lantzeko eskemak izango dituzte eta kontrol bat egingo dute.
- Laborategira joango gara gaiak aukera ematen dutenean. (aurten ez dugu bikoizketarik eta zailagoa izango da).
 - Gaiaren bukaerako AZTERKETA ZIENTIFIKORANTZ atala burutu ahal izango, laguntzarik jaso gabe, beraien autonomia sustatu eta ulermen maila balioztatu ahal izateko.
 - Classroom aplikazioaren bidez informazioa eta atazak jarri.
 - Irteerak.

EBALUAZIO TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoak...]

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
[ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

- **Azterketa**

- %60. Kontzeptuak bereganatu eta ulertzea. Arrazonamenduak eta dedukzioak egitea. Froga irekiak, ariketak. Hizkuntza zientifikoaren erabilpena. **(ebaluazio bateko azterketen mediak 4 eman beharko du gutxienez,**



<ul style="list-style-type: none">- Aurkezpenak- Froga irekiak- Eguneroko ariketak (etxerako, zein klaseko lanak)- Lan monografikoak <p style="text-align: center;">Jarrera</p> <ul style="list-style-type: none">o Interesa adieraztea, arreta jartzea, parte hartzeao Ikaskideei laguntza eskaini eta errespetua adierazteao Klasera puntualtasunez etortzeao Beharrezkoa den materiala ekartzeao Eskola orduetan lan egiteao Portaera aproposa izatea,o Aditasuna saio osoan mantentzea.O Etxeko lanak egiteao Interesa adieraztea, arreta jartzea, parte hartzeao Ikaskideei laguntza eskaini eta errespetua adieraztea	<p>aprobaturia lortu ahal izateko)</p> <p>-%20*. Proposatutako ariketak, eskemak eta lanak egitea. Proposatutako lanak epean entregatzea. Ariketak eta lanak osatuta eta txukun aurkeztea Ariketak behar bezala zuzentzea.</p> <p>-%20. Kontrol orriak: Klasera puntualtasunez etortzea. Beharrezkoa den materiala ekartzea. Eskola orduetan lan egitea. Portaera aproposa izatea. Etxeko lanak egitea. Interesa adieraztea, arreta jartzea, parte hartzea. Ikaskideei laguntza eskaini eta errespetua adieraztea.</p> <p>* Ebaluaketa bakoitzean zehaztuko da, aurkezpen, monografiko, eta abarren balorazioa, egindako kopuruaren arabera.</p>
--	--



EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuperazio-sistema...]

- _ Ikasleak gaitzetzeko egin behar duena, aurretik jasoko du, irakasleak emandako dokumento batean (edukiak zehazturik, berreskuratzeko data, lana emateko epea...).
- Berak eta gurasoek sinatuko dute dokumentu hori.
- Hurrengo ebaluazioan zehar aurreko edukien azterketa egitea, edota aurreko atalean agindutako lana burutuz gero.
 - Ez-ohiko azterketa gaitzetzeko ebaluazio irizpideak gaitzitu behar dira.
 - Azterketak gaitzitura izanik, kuadernoa eta jarrera dela eta suspenditzen duenean, lan txostena eta kuadernoa berreginda entrega dezala.

OHARRAK

Unitate didaktikoak aldakorrak izan daitezke, ikasle taldeen arabera, irteerak eta beste motiboengatik ordu murrizketa baleude, eta abar.